

Otsailean kondenatu zituzten Ipar EH bost militanteen sostenguz elkartasun kutxa bat ireki dute

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 06/02/2025

Errepresio kasuak sortutako gastuei aurre egiteko dohaintzak egiteko aukera izanen da kutxa honen bidez.

Martxoaren 6an indar errepresiboek **sei militante atxilotu zituzten Lapurdin**, hainbat manifestaziotan parte hartzeagatik. Lehena, 2022ko uztailaren 14an Donibane Lohizunen (Lapurdi) U14 kolektiboak deitutako manifestazioa, bertan burua estalia zuten zenbait pertsonak hainbat higiezin agentziaren kontra pintura bota zuten. Bigarrena, 2023ko martxoaren 23an erretreten erreformaren kontra Baionan egin zen manifestazioari dagokio, gertatu ziren istiluetan parte hartu eta segurtasun agente bat baino gehiago zauritzea leporatu zieten. Era berean, 2023ko uztailaren 12an Hendaia tren turistikoaren kontra margoketa bat egin, eta gidaria lurrera erorarazi eta zauritu izana leporatu zieten baita ere. Margoketa hori U14 kolektiboak antolatutako manifestazioan parte hartzeri deitzen zuen.

Ekintza hauengatik pasaden urteko urrian bost militante epaitu zituzten Baionan. Epaiketan ikusi zenez, prozeduran agertzen diren elementu gehienak Frantziako Krimen Antolatuaren Gainera Informazio, Inteligentzia eta Analisi Estrategikoko Zerbitzuaren (Sirasco) oharretan oinarritu ziren: Hendaia gaztetxearen inguruan Sirascok egindako zainketak nagusiki. Bestalde, prokuradoreak ausardi falta leporatu zien auziperatuei ez zutelako galderei erantzun nahi eta deklaratzera ukatu egin zirelako. Zehazki, "aurpegiak estalita poliziaren kontra egitean ausartak direla, baina gero epaitegian isilik daudela" esan zuen.

Otsailean jakinarazi zutenez, akusatuetako biri 15 hilabeteko presondegi zigorrera kondenatuak izan dira, gainera, interes publikoko 140 orduko lanak eta 1.000 euroko isuna ezarri diete (murrizketa dela-eta, 500 euro inguruko zenbatekoa izango luke). Hirugarren akusatu bati eguneko 28 euroko isuna ezarri diote 60 egunez, hau da, 1.700 euro. Eta akusatuen multzoari frantses hiritartasunari buruzko ikastaro bat egitera zigortu dute, hiru urtez manifestazioetan parte hartzeko debekua gain. Kasu errepresibo honi aurre egiteko, Hendaia eta Urruñako bost militanteen sostenguz **elkartasun kutxa bat ireki dute**, non errepresio kasuak sortutako gastuei aurre egiteko dohaintzak egiteko aukera izanen da.

<https://eh.lahaine.org/otsailean-kondenatu-zituzten-ipar-eh>